

**GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN ETA BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, MALLABIKO ETA ZALDIBARKO UDALERRIEI UR-HORNIDURA EMATEKO**

**CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL CONSORCIO DE AGUAS DE GIPUZKOA Y EL CONSORCIO DE AGUAS DE BILBAO - BIZKAIA PARA EL SUMINISTRO DE AGUA DE ABASTECIMIENTO A LOS MUNICIPIOS DE MALLABIA Y ZALDIBAR**

Bilbon, 2020ko abenduaren 23an

En Bilbao, a 31 de marzo de 2021

**BILDU DIRA**

Alde batetik, **Olatz Peon Ormazabal and.**, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren presidentea den aldetik, haren izenean eta ordezkari gisa jardunez.

Bestetik, **Kepa Odriozola Azula jn.**, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko presidentea den aldetik, erakunde horren izenean eta haren ordezkari gisa jardunez; hitzarmen hau sinatzeko gaituta dago 2020ko abenduaren 22an Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakia dela bide.

Bi aldeek, jarduten duten gisan, lankidetzaz hitzarmen hau sinatzeko nahikoa gaitasun juridiko aitortu diote elkarri, eta, hartara,

**AZALDU DUTE**

I.- Gipuzkoako Ur Kontsortzioa zuzenbide publikoko eta asoziazio-izaerako erakunde bat da, Gipuzkoako hainbat udalerrik osatutakoa (besteak beste Mallabiak). Kontsortzioaren xedea da *“ur-hornidurako eta saneamenduko azpiegitura ezartzea eta ustiatzea lehen mailako sareetan, bai eta dagozkion zerbitzuak ematea ere, hori guztia indarreko araudian xedatutako baldintza egokiak betez”*.

II.- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa tokiko partzuergo bat da eta funtsezko misio hau du: edateko ura hornitzeko eta hondakin-urak tratatzeko zerbitzuak ematea bere lurralde-eremua osatzen duten udalerrietan, Partzuergoaren beraren Estatutuen arabera. Estatutuen azken aldaketa 2019ko martxoaren 13an onetsi zuen Batzar Nagusiak.

**REUNIDOS**

De una parte, **Dña. Olatz Peon Ormazabal**, en calidad de Presidenta, en nombre y representación del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa.


Y, de otra parte, **D. Kepa Odriozola Azula**, en calidad de Presidente, en nombre y representación del Consorcio de Aguas de Bilbao-Bizkaia, autorizado para la firma del presente convenio por acuerdo adoptado por el Comité Directivo de fecha 22 de diciembre de 2020.

Ambas partes, en la calidad en la que intervienen, se reconocen capacidad jurídica suficiente para la suscripción del presente Convenio de Colaboración y, a tal efecto,

**EXPONEN**

I.- El Consorcio de Aguas de Gipuzkoa es un organismo de derecho público de base asociativa constituido por una serie de municipios de Gipuzkoa (entre ellos el de Mallabia), cuyo fin consiste en el *“establecimiento y la explotación de la infraestructura del abastecimiento de agua y saneamiento en redes primarias y la prestación de los servicios correspondientes, todo ello en condiciones adecuadas conforme a la normativa vigente”*.

II.- Que el Consorcio de Aguas de Bilbao-Bizkaia es un consorcio local que tiene como misión primordial la prestación de los servicios de abastecimiento de agua potable y tratamiento de aguas residuales en el ámbito territorial de los municipios que lo conforman, según sus propios Estatutos, cuya última modificación fue aprobada por la Asamblea General de 13 de marzo de 2019.



Partzuergoak hornidura-zerbitzua ematen dio Zaldibarko udalerrinari, lehen mailako sarean eta bigarren mailako sarean.

III.- 1996ko abenduaren 10ean, Durangoko Merindadeko Ur Partzuergoak eta Mallabiko Udalak lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuten Mallabiko udalerrinari ura hornitzeko Mañaria-Ermua hodiaren bidez.

Batzar Nagusiaren 1998ko abenduaren 30eko erabakiaren bidez, Durangoko Merindadeko Ur Partzuergoa desagitea erabaki zen. 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak bere gain hartu zuen zerbitzuak kudeatzeko ardura eta Mañaria-Ermua hodia ustiatzearen eta mantentzearen ondoriozko eskumenak, bai eta beharrezkoa denean Mallabiko udalerrinari ur-hornidura bermatzeko zeregina ere.

IV.- 2019ko martxoaren 29an Mallabiko Udalarekin sinatutako lankidetzaz hitzarmenaren bidez, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren esku utzi zen uraren ziklo integrala kudeatzeko lana, besteak beste, hornidurako eta saneamenduko "goiko" eta "beheko" sareak kudeatzea eta beharrezko inbertsioak egitea.

Era berean, erakunde horrek bere gain hartu zituen lehen mailako sarearen bidezko ur-kontsumoari eta hornidurari lotutako gastuak, hala nola Mañaria-Ermua hodia mantentzearen ondoriozko gastuak, ordura arte Mallabiko Udalak bere gain hartzen zituenak.

Egun hori iritsi aurretik, eta Estatutuetan aurreikusitakoaren arabera, Gipuzkoako Urak erakundeak "goiko" sarearen saneamenduko eta hornidurako zerbitzu-publikoak baino ez zituen kudeatzen Mallabiko udalerrian.

V.- 2020ko otsailaren 6an, luizi bat gertatu zen Zaldibar udalerrian kokatuta dagoen zabortegian. Horren ondorioz, San Lorenzo ur-biltegia zerbitzuz kanpo utzi zen, eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren jabetzakoa den Ermuko sarean behin-behineko hargune bat jarri behar izan zen, Zaldibarko Sallabente auzoa hornitzeko.

VI.- Aldaketa bat gertatu da Mañaria-Ermua hodiaren mantentzeari eta ustiapenari jatorrian lotutako subjektuen artean. Horrez gain, aipatutako hitzarmen

Que el Consorcio presta los servicios de abastecimiento en red primaria y en red secundaria al municipio de Zaldibar.

III.- Que con fecha 10 de diciembre de 1996 el Consorcio de Aguas de la merindad de Durango y el Ayuntamiento de Mallabia suscribieron un convenio de colaboración para el suministro de agua de abastecimiento al municipio de Mallabia a través de la conducción Mañaria-Ermua.

Que mediante acuerdo del Consejo General de fecha de 30 de diciembre de 1998 se acordó la disolución del Consorcio de Aguas de la Merindad de Durango, siendo el Consorcio de Aguas de Bilbao-Bizkaia quien a partir del 1 de enero de 1999 asumió la gestión de los servicios y de las competencias derivadas de la explotación y mantenimiento de la conducción Mañaria-Ermua, incluida la garantía y suministro de agua cuando fuere necesario al municipio de Mallabia.

IV.- Que mediante Convenio suscrito el 29 de marzo de 2019 el Ayuntamiento de Mallabia encomendó al Consorcio de Aguas de Gipuzkoa la gestión del ciclo integral del agua, que comprende la gestión de las redes de abastecimiento y saneamiento de "alta" y "baja", incluso la realización de las inversiones necesarias.

Asimismo, esta entidad asumió los gastos relacionados con el suministro y consumo de agua en red primaria como los gastos derivados del mantenimiento de la conducción Mañaria-Ermua que venía asumiendo el Ayuntamiento de Mallabia.

Con anterioridad a dicha fecha y de acuerdo con sus previsiones estatutarias, el Aguas de Gipuzkoa únicamente gestionaba el servicio público de abastecimiento de agua y saneamiento de la red en "alta" en el municipio de Mallabia.

V.- Que el 6 de febrero de 2020 se produjo un derrumbe en el vertedero ubicado en el municipio de Zaldibar lo que dejó fuera de servicio el Depósito de San Lorenzo, siendo necesario establecer una toma provisional desde la red de Ermua, perteneciente al Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, para abastecer al barrio de Sallabente del municipio de Zaldibar.

VI.- Que se ha producido un cambio entre los sujetos originariamente vinculados a la explotación y mantenimiento de la conducción Mañaria-Ermua y ha



arautzailearen gehieneko indarraldia iraungi da, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoaren arabera.

Horrez gain, Ermuko sarearen bidez Sallabenteko auzoa hornitzeko hargunea modu iraunkorrean arautu beharra dago.

Hori guztia dela eta, bi alderdiek interesa dutenez interes publikoko helburu komunean, zehazki, aprobetxamendu hidraulikoaren, ur-horniduraren eta hondakin-uren saneamenduaren eta tratamenduaren arloan, eta kontuan hartuta Administrazio Publikoen arteko harremanetan lankidetzaren printzipioa gailendu behar dela, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 141.1.d artikuluan ezarritakoari jarraikiz, lankidetzaren hitzarmen hau formalizatu dute, honako klausula hauen arabera:

## KLAUSULAK

### Lehenengoa. - Xedea

Hitzarmen honen xedea da arautzea zer baldintzatan emango duen eta berrmatuko duen hornidura-zerbitzua Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak Mallabia udalerrian eta Gipuzkoako Ur Kontsorzioak Zaldibar udalerriko Sallabente auzoan.

### Bigarrena. - Irismena

- a) Mañaria-Ermua hodiaren bidez Mallabiko udalerrira hornitzea.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak Mallabiko udalerrira ura hornitzen dio Mañaria-Ermua hodiaren bidez.

Gaur egun, Mallabiko udal-mugarteak gutxi gorabehera 210.000 m<sup>3</sup> ur behar izaten ditu urtean. % 10eko marjina ezarri da, beraz, Partzuergoak 231.000 m<sup>3</sup> ur deribatuko ditu gehienez ere urtean.

Deribatu beharreko aldiuneko gehieneko emariari dagokionez, 10 litro segundokoa izango da.

expirado, de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público el plazo máximo de vigencia del referido convenio regulador.

Que, asimismo, se hace necesario regular con carácter duradero la toma de agua desde la red de Ermua al barrio de Sallabente.

Y en vista de ello, ambas partes, estando interesadas en fines comunes de interés público en materia de aprovechamiento hidráulico, abastecimiento de agua y al saneamiento y tratamiento de aguas residuales, y teniendo en cuenta el principio de cooperación que debe observarse en las relaciones entre las Administraciones Públicas, a tenor de lo establecido en el artículo 141.1.d de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, proceden a formalizar el presente Convenio de Colaboración con arreglo a las siguientes:

## CLÁUSULAS

### Primera. - Objeto

Es objeto del presente convenio regular las condiciones en que se garantizará y suministrará agua para abastecimiento al municipio de Mallabia por parte del Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia y al barrio Sallabente del municipio de Zaldibar por parte del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa.

### Segunda. - Alcance

- a) Abastecimiento desde la conducción Mañaria-Ermua al municipio de Mallabia.

El Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia suministra agua al municipio de Mallabia a través de la conducción Mañaria-Ermua.

Actualmente el término municipal de Mallabia tiene unas necesidades anuales de agua de, aproximadamente, 210.000 m<sup>3</sup>, se establece un margen del 10%, por lo que 231.000m<sup>3</sup>, será el volumen máximo anual a derivar por la toma del Consorcio.

En cuanto al caudal máximo instantáneo a derivar, este será de 10 litros por segundo.



b) Ermuko sarearen bidez Zaldibarko Sallabente auzoa hornitzea

Gaur egun, Gipuzkoako Uren Kantsortzioak Zaldibarko Sallabente auzoa hornitzen du Ermuko udal-sareko hargune baten bidez. Hargune hori behin-behinekoa da eta, bertan, auzoaren kontsumoak kontrolatzeko emari-neurgailu bat jarri da.

Une hauetan, Gipuzkoako Ur Kantsortzioa eremu horretako (Gipuzkoako etorbidea) hornidura-sarea berritzen ari da. Lan horien baitan hargune bat prest utziko da, BBUPk aprobetxatuko duena, Sallabenteko auzoaren behin betiko hornidura instalatzeko. Puntu horretan jarriko da auzoaren kontsumoak kontrolatzeko emari-neurgailua.

Gaur egun, Gipuzkoako Ur Kantsortzioaren bidez hornitzen den Saballende auzoak urtean 23.000 m<sup>3</sup> ur kontsumitzen du gutxi gorabehera. % 10eko marjina ezarri da, eta kontuan hartuta gaur arte irakurritako kontsumoak eta eremuko jarduera, Gipuzkoako Ur Kantsortzioaren hargunetik 25.500 m<sup>3</sup> ur deribatuko dira gehienez ere urtean.

Deribatu beharreko aldiuneko gehieneko emariari dagokionez, 3 litro segundokoa izango da

**Hirugarrena. - Prestazio ekonomikoa eta ordainketa**

Partzuergoek sei hilabeterik behin likidatuko dituzte hornitutako metro kubikoak, eta likidazioen arteko aldea Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren lehen mailako sareko indarreko tarifaren arabera ordainduko da, gehienez ere 30 eguneko epean.

Salbuespen gisa, ur-bolumenaren arteko aldearen likidazioa Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak Mallabiko Udalari orain arte fakturatu dion prezioan egingo da 2020. urtera arte.

Ildo horretan, Gipuzkoako Ur Kantsortzioak, Mallabiko Udalak uraren ziklo integralaren kudeaketari dagokionez dituen betebeharrak guztietan subrogatuta,

b) Abastecimiento desde la red de Ermua al barrio de Sallabente de Zaldibar

Actualmente el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa suministra agua al barrio de Sallabente del municipio de Zaldibar a través de una toma, de la red municipal de Ermua, provisional y en la que está instalado el caudalímetro de control de consumos del barrio.

En estos momentos el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa está renovando la red de abastecimiento de la zona (Avenida de Gipuzkoa). En dichas obras se va a dejar preparada una toma que aprovechará el CABB para la instalación definitiva del abastecimiento del barrio de Sallabente. En este punto se instalará el caudalímetro de control de consumos del barrio.

Actualmente el consumo del barrio de Saballende abastecido desde el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa tiene unas necesidades anuales de agua de, aproximadamente, 23.000 m<sup>3</sup>, se establece un margen del 10%, Atendiendo a los consumos leídos hasta la fecha y teniendo en cuenta la actividad de la zona, el volumen máximo anual a derivar desde la toma del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa será de 25.500 m<sup>3</sup>.

En cuanto al caudal máximo instantáneo a derivar, este será de 3 litros por segundo.

**Tercera. - Prestación económica y abono**

Ambos Consorcios liquidarán semestralmente los m<sup>3</sup> suministrados y la diferencia resultante será abonada de acuerdo con la tarifa de red primaria del Consorcio de Aguas de Bilbao Bizkaia, vigente en cada momento, en el plazo máximo de 30 días.

Excepcionalmente, la liquidación de los volúmenes diferencia hasta el año 2020, se realizará a los precios a los que el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia venía facturando al Ayuntamiento de Mallabia.

En este sentido el Consorcio de Aguas Gipuzkoa, habiéndose subrogado en todas las obligaciones del Ayuntamiento de Mallabia en cuanto a la gestión del ciclo integral del agua, se hará cargo del pago las facturas



2019ko apirilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitarteko aldiari dagozkion fakturak ordainduko ditu.

#### **Laugarrena. - Aldeen betebeharrak**

Bi aldeek konpromisoa hartzen dute instalazioak kaltetu ditzakeen funtzionamendu-arazorik egotekotan beste aldeari horren berri emateko berehala.

Bi Partzuergoek eskubidea izango dute ezinbesteko arrazoiengatik edo interes orokorreko arrazoiengatik hornidura eteteko.

#### **Bosgarrena. - Jarraipena eta kontrola**

Jarraipen-batzorde bat osatuko da, eta alde bakoitzeko ordezkari bana bilduko da batzorde horretan; hitzarmen honetako klausulak interpretatu eta aplikatzean sor daitezkeen interpretazio eta betetze arazoak konpontzea izango du xede. Batzordea beharrezkoa den guztietan batuko da, edozein alde hala eskatzen badu.

#### **Seigarrena. - Ondorioak eta iraupena**

Hitzarmen honek ez dakar esku hartzen duten alderdien eskumenak aldatzea edo horiei uko egitea.

Hitzarmena sinatzen den egunean sartuko da indarrean, eta lau urteko iraupena izango du, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49. artikulua 1. apartatuan ezarritakoaren arabera.

Arestian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, beste lau urtetarako, edo hitzarmena azkentzea.

#### **Zazpigarrena. - Aldaketak eta azkentzea**

Aldeetako edozeinek aldatu ahalko du lankidetzahitzarmen hau, edozein alde proposatuta, aldatzeko erabakia sinatuz, kontratuaren indarraldia bukatu aurretik.

Hitzarmen hau honako arrazoi hauengatik utzi ahalko da bertan behera indarraldia bukatu aurretik:

- a) Hitzarmenaren indarraldia amaitu ondoren indarraldi hori luzatzea ez erabakitzea.

correspondientes al periodo comprendido entre el 1 de abril del 2019 y el 31 de diciembre del 2020.

#### **Cuarta. - Obligaciones de las partes**

Las partes se comprometen a dar cuenta de forma inmediata de cualquier anomalía de funcionamiento que pueda afectar al conjunto de instalaciones.

Ambos Consorcios se reservan el derecho de interrumpir el suministro de agua por causas de fuerza mayor o de interés general.

#### **Quinta. - Seguimiento y control**

Se establece una comisión de seguimiento, formada por un representante de cada una de las partes, para resolver los problemas de interpretación y cumplimiento que pudieran plantearse en la interpretación y aplicación de las cláusulas de este convenio. Dicha Comisión se reunirá cuantas veces sea necesario, a petición de cualquiera de las partes.

#### **Sexta. - Efectos y duración**

El presente Convenio no supone renuncia ni alteración de las competencias propias de las partes interviniente.

El Convenio, que entrará en vigor el día de su firma, tendrá una duración de cuatro años en virtud de lo establecido en el apartado 1 del artículo 49 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.


En cualquier momento anterior a la finalización del plazo previsto anteriormente, los firmantes del convenio podrán acordar unánimemente su prórroga, por un periodo de hasta cuatro años adicionales, o su extinción.

#### **Séptima. - Modificación y Resolución**

El presente convenio de colaboración podrá ser modificado por acuerdo de las partes, a propuesta de cualquiera de éstas, mediante la suscripción del oportuno acuerdo de modificación, formalizado antes de la finalización de la duración del mismo.

Serán causas de resolución anticipada del presente convenio:

- a) El transcurso del plazo de vigencia del convenio sin haberse acordado la prórroga del mismo.



- b) Sinatzaile guztiak aho batez ados jartzea.
- c) Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak edo konpromisoak ez betetzea.

Kasu horretan, aldeetako edozeinek bere betebeharrak edo konpromisoak bete ez dituen aldeari errekerimendu bat jakinarazi ahalko dio, epe jakin baten barruan ez-betetzat jo diren betebeharrak edo konpromisoak bete ditzan. Errekerimendu hori hitzarmenaren jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoaren arduradunari eta sinatu duten gainerako aldeei jakinaraziko zaie.

Errekerimenduan azaldutako epea igarotakoan ez betetzen jarraitzen bada, errekerimendua igorri zuen aldeak alde sinatzaileei hitzarmena suntsitzeko arrazoia dagoela jakinaraziko die, eta hitzarmena suntsituta dagoela ulertuko da. Arrazoi horregatik hitzarmena suntsitzen bada, baliteke sortutako kalteak ordaindu behar izatea, hala aurreikusita bada.

- d) Hitzarmenaren deuseztasuna deklaratzeko duen erabaki judizial batengatik.
- e) Aurrekoak ez diren beste arrazoi guztiak, hitzarmenaren edo beste lege batzuetan aurreikusita badaude.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49.e) eta 51.2.c) artikuluetako inguruabarretan kalte-ordaina jasotzeko moduko kalteak sortuz gero, orduan kalteak ebaluatu egingo dira eta hitzarmen honen jarraipen-batzordeak ebatziko du.

#### **Hamargarrena. - Izaera eta jurisdikzioa**

Hitzarmen honek administrazio izaera dauka, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluko VI. kapituluaren ezarritakoaren arabera arautzen da. Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen aplikazio-esparrutik kanpo dago, 6.1 artikulua dela bide; nolana ere, lege horretako irizpideak eta printzipioak aplikatu daitezke sor daitezkeen hutsune eta zalantzak argitzeko.

- b) El acuerdo unánime de todos los firmantes.
- c) El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por parte de alguno de los firmantes.

En este caso, cualquiera de las partes podrá notificar a la parte incumplidora un requerimiento para que cumpla en un determinado plazo con las obligaciones o compromisos que se consideran incumplidos. Este requerimiento será comunicado al responsable del mecanismo de seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del convenio y a las demás partes firmantes.


Si trascurrido el plazo indicado en el requerimiento persistiera el incumplimiento, la parte que lo dirigió notificará a las partes firmantes la concurrencia de la causa de resolución y se entenderá resuelto el convenio. La resolución del convenio por esta causa podrá conllevar la indemnización de los perjuicios causados si así se hubiera previsto.

- d) Por decisión judicial declaratoria de la nulidad del convenio.
- e) Por cualquier otra causa distinta de las anteriores prevista en el convenio o en otras leyes.

En caso de que existieran perjuicios susceptibles de indemnización en los términos de los artículos 49.e) y 51.2.c) de la Ley 40/2015 de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, éstos serán evaluados y acordados por la Comisión de Seguimiento del presente Convenio.

#### **Décima. - Naturaleza y Jurisdicción**

El presente convenio tiene naturaleza administrativa y se rige por lo dispuesto en el capítulo VI del Título Preliminar de la Ley 40/2015 de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público. Está excluido del ámbito de aplicación de la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público, en virtud del artículo 6.1, sin perjuicio de la aplicación de los principios y criterios de dicha Ley para resolver las dudas y lagunas que puedan presentarse.



Lankidetzeta-hitzarmen honetan ezarritakoa interpretatu edo gauzatzeari lotuta aldeen artean edonolako desadostasunak sortuz gero, eta jarraipen-batzordearen baitan konpondu ez bada, orduan, Administrazioarekiko Auzi Ordenako epaitegi eta epaileek horretarako ebazten dutenaren arabera ebatziko da.

La existencia de cualquier tipo de discrepancia entre las partes en relación con la interpretación o ejecución de lo establecido en este convenio de colaboración, no resuelto en el seno del comité de seguimiento, se resolverá conforme a lo que al efecto se determine por los Jueces y Tribunales del Orden Jurisdiccional Contencioso-Administrativo.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela erakusteko, esku hartu duten aldeek hitzarmen hau sinatzen dute, hiru ale eta ondorio bakarrarekin, hasieran aipatutako tokian eta datan.

Y en prueba de conformidad en cuanto antecede, las partes lo firman en duplicado ejemplar y a un solo efecto en el lugar y fecha en su encabezamiento indicados.


**GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOKO PRESIDENTEA**  
**LA PRESIDENTA DEL**  
**CONSORCIO DE AGUAS DE GIPUZKOA**



**Sin./Fdo.: Olatz Peón Ormazabal and.**



**BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOKO PRESIDENTE**  
**EL PRESIDENTE DEL**  
**CONSORCIO DE AGUAS DE BILBAO - BIZKAIA**



**Sin./Fdo.: Kepa Odriozola Azula jn.**

